

Zenbateko "auto" autoikaskuntzan?

Lew Barnett

"Autoikaskuntza" eta "ikaslearen independentzia" terminoek laguntza eta gidaririk gabe ari den ikaslearen irudia dakarte askotan burura. Baina hori ez da horrela; eta ez da desiragarria ere. Era asko dauzkate eskuetan materialen sortzaile eta autoikaskuntza-gelaren antolatzaileek ikasleari, honen aukeratzeko askatasuna errespetatuz, baliabideak taxuz erabiltzen laguntzeko. Modu bat materialak ikasleak probetxugarrienak aukeratzeko eran antolatzea da (esate baterako, gaika sailka daitezke). Beste alderdi bat, garrantzi handikoa hau ere, ikasleak prestatzea (horretarako material bereziak sortuz, estrategia eraginkorren bitartez baliabideak egoki erabiltzen lagunduko dietenak). Azkenik, taldeko lan gidatuak antolatu, baliabidetegiko hainbat lekutara bideratzeko moduan. Azken lan hauek, begien bistakoa denez, ez dira oso-osorik "auto" izango; baina, nolanahi ere, irakasleak ez du ataza obratzea bera gidatzen. Era honetan ikaslea gidatu egiten da eta harengan eragin ere bai, baina askatasuna kendu gabe.

Ambrose Bierce-k, mende honen hasierako umorista amerikar ozpin-tsuak, *Deabruaren Hiztegia* izeneko liburua idatzi zuen, hizkuntza ingelesaren zati bat birdefinituz. "Satan" hitzaren pean adierazten da nola hau, zerutik botea izan ondoren, berriz hara itzuli zen azken eskari bat egitera. Gizonak legeak beharko dituela dio; baina Jainkoak, haserre bizian etsaiaren kalaka etenez, galdetzen dio ea nola bera, Satan, den bezalakoa izanik, ausartzen den gizonen legeak egiteko eskubidea eskatzera. Satanek erantzun: Barka, Jauna, nik eskatzen dudana zera da: gizonari eman diezaiozula bere legeak egiteko eskumena.

Gero eta interes handiagoa pizten ari den ikaslearen autonomiak, nahiz eta filosofiaren aldetik erakargarria iruditzen zaidan, galdera bat dakarkit burura batzuetan: zenbateko mesedea egiten ote diogu ikasleari honen bidean ez jartzeko gure ahalegin sutsuarekin. Bierce bezain mina izan gabe ere, aitortzen dut deabrukeria hutsa dela ikasleak berekasa uztea. Irakasleok dugun erantzukizuna ikaslearen aukeramen ahalik eta gehien handitzekoa da, baina baita haren ikaskuntza gainbegiratzekoa ere.

ESADE-n, Bartzelonako hizkuntz ikastetxe handi bat, autoikaskuntza-gela bat jarri genuen martxan orain dela bi urte ikaskuntza independentea sustatzeko asmoz. Baina lanean aritu den bitarte horretan, ikasleekiko

dugun arduraren jakinaren gainean, baliabide horien erabiltzaileei orientazio eta aholkuak emate aldeko pausuak egin ditugu. Norberekasa ikastearen ezaugarri nagusietako bat materialak nahi den bezala aukeratzeko moduan eskura edukitzea izanda ere, ezinbestekoa da gure bezero diren ikasleen arteko "banakakotasuna" aitortzea, eta, ondorioz, hezkuntza eta orientaziorako material egokien beharra. Garrantzi handikoak dira material hauek, gure baliabideak erabiltzen dituzten "gizabanakoek" beren buruak bakarrik eta abandonatuta ikus ez ditzaten. Bestela esanda, autoikaskuntzarako baliabideak edo ikaslearen independentzia handitzeko asmoz moldatutako edozein sistematako materialen antolatzaileek ohartu behar dute independentzia hori ez dela egitura zurrin eta lotzaileetatik aske egotea bakarrik, ataza egokiak egiteko askatasuna ere badela; beraz, beren askatasunaz zuzen baliatzeko laguntza eman behar diegu erabiltzaileei, eta ez baliabideak eskaini eta gu izkutatatu.

Gure autoikaskuntzako gelan, esate baterako, etengabe aritu gara orientaziorako materialak berrikusten. Ordenagailurako fitxak izan daitezke horren adierazlerik behinenak. Hasiera batean, gure ohar-aginduak era honetakoak izaten ziren: "aukeratu disko bat, sartu ordenagailuan eta bete pantailako aginduak". Orain, ordea, ia okerbideetik joateko aukerarik uzten ez duten agindutara jaitsi gara, eskarmentudunek jakinaren gainekotzat dauzkaten arren; asko eskertzen bait dituzte ikasle berriek (adibidez, makina piztu/itxaltzeko botoia non dagoen, fitxategiak nola aukeratu...). Pozgarria da benetan ikustea nola hasieran beldurrez ibiltzen ziren ikasleak ordenagailuaren erabilerarako oharretan barrena aurrera doazen –orain dela urte bete askok makina alde batera utziko zukeen edo esperientziak erabat frustratuko zituzkeen. Orain beren kabuz aritzen laguntzen diegu, orientazioa hartzeko *nabarmenki gure baitan egoteko* bidea emanez.

Bigarren alor garrantzizko bat horrela lan egiteko ikaslea prestatzea edo gai egitea da. *Hezkuntz modu* hau modan jarri da ikasgelan, bai, baina ez da aldi berean horretarako autoikaskuntzako gelan behar diren materialei buruz asko hitz egin. Aurten ariketa-multzo bat prestatu dugu, ikasleak bere martxan noiznahi gida gisa erabil ditzan. Horrelako gela bat oso leku egoki eta logikoa da prestakuntza hori egiteko, ikasleak benetan independenteak izateko moduko lekua bait da. Hantxe handi ditzakete beren ikasteko ahalmenak, beren estrategia propioak beren gisa garatuz. Izan ere, kontraesantxo bat badago irakasleak ikasleei nola ikasi "irakaste" horretan. Autoikaskuntzako gelan *ikasleak berak ikas dezake nola ikasi*, hala nahi baldin badu.

Gure materialen artean ordenagailu, bideo, kasete edo idatzi bidezko ariketekin batera, ohar motz batzuk sartu ditugu ikasleei eskaini nahi dizkiegun estrategiak azaltzeko. Adibidez, bideozko ariketa mutu egoki batzuen bitartez erraz erakuts daiteke nola baliatu begizko aztarnez. Hor daude aurrikuspen-gaitasuna lantzeko zintak ariketa idatzizkoekin batera; zinta gelditu eta ondoren berehala zer gertatuko den asmatzeko eskatzen diote ikasleari. Eta beste asko daude. Garrantzizkoa hauxe da: gela horren ardura dugunok ikasleari materialak erabiltzen utzi baino gehiago egiten dugula, autonomia handiagoa izan dezan *prestatzen* saiatzen garela.

Ikasleen askatasuna "behartzeko" beste modua elkarrekiko lotura edo erlazioa duten materialen bidezkoa izan da. Erabiltzaileak gai beretsuaz ari diren ordenagailuzko ariketak eta bideoak aurki baditzake ere, ordenagailurako, zinta, irakurgai eta bideoekin zuzeneko lotura izango duten geure programa propioak *ekoizten* saiatu gara. Horrela, material horietan "mezuak" itsasten ditugu, ikasleari baliabide horiekin lotura duten beste batzuetara jotzeko iradokiz.

Esate baterako, norbaitek boltsaren porrotari buruzko zinta bat entzuten badu, azalean ohar bat aurkituko du: zinta aztertu nahi badu, baduela ordenagailuan horretarako cloze-test bat (erreferentzi zenbakia ere eman egiten zaio). Bada elkarrekin erlaziorik duten material guztien aurkibide edo zerrenda bat ere. Sistema honek beti helburu bera du: ikaslea ohar dadila zenbateko garrantzia duen gauzak berrikusteko eta autoikaskuntzarako materialak era askotan erabiltzeak.

Jakina, materialak topikoz topiko sailkatzeko erabakia bera ere material-eredu bat ezartzea da— gure irizpideak ezartzen ditugu ikasleei lanerako sistema bat eskaintzeko asmoz. Esan genezakeen "Hona hemen maila ertaineko ikasleentzako materialak" eta berei aukeratzen utzi. Baina beste hau esaten dugu: "Maila ertainetako ikasleentzako material hauek honako eduki (topiko) hauek dituzte"; eta horrela ikasleak bere interesekin lotuago dauden materialak aukera ditzake. Begien bistakoa da edozein sistemarengatik esan daitekeela independentzia murrizten duela, baina, gure ustez, independentzia sustatzen duela ere esan daiteke; ikasleei baliabideak etekina ateratzeko moduan erabiltzeko bidea emango bait die eta ez dira beren askatasunarekin zer egin ez dakitela geldituko.

Autoikaskuntzaren alorrean gidaritzak izan ditzakeen ondorioez gero eta grinatuagorik gaudenez, beste esperimentu bati eman diogu hasiera horrelako ikastaro batean izen eman duten ikasleekin: autoikaskuntzako gela mugarik gabe gehi ordu beteko eztabaida hamabostero. Saio hauetan, gela horretaz nola baliatu erakutsi zaie bereziki. Beste batzuek ez dute gai hori batere landu. Oraindik ere emaitzen neurketa behin-betirakorik eskuetan ez dugun arren, gure ustez, horrela aritu diren taldeek lan hobea egingo dute, etekin joriagoak lortuko dituzte eta seguraski ikastaroa bukatu ondoren ere ez dira autoikaskuntzako gela horretara azaldu gabe geratuko.

Azkenik, klase-orduetan autoikaskuntzako gelara joaten diren taldeentzako ikasmaterial berezia sortu dugu, banaka ez baizik taldean erabiltzen dutena. Ekintza hauek puzzle-moduak dira, talde bakoitzak bere informazioa eskuratzen du, autoikaskuntzako gelan batera edo bestera joanez. Gero, informazio horiek elkartrukatzuz eta ikasgelan landutako abildade komunikatiboez baliatuz, problemari irtenbidea ematen diote edo talde osoan erabakiren bat hartzen dute. Alde horretatik, ekintza hauek horretarako gela berezian egiten diren heinean bakarrik dira autoikaskuntzakoak. Dena den, egin beharreko lana ezarritako atazak markatzen badu ere, ikasleek elkarri irakasten diote hasieran nor bere kabuz aritu ondoren; beraz, ekintza hauek ikasleen independentzia handiagoaren mesedetarako dira, horretarako erabiltzen bait dituzte autoikaskuntzako gelan dauden materialak.

Ez genizkieke, nire ustez, ikasteko sistemei buruz guk ditugun iritziak ikasleei ezarri behar. Ikaslearen independentzia ahalik eta handienaren alde azaltzean aitortzen dut irakasleak ikasteko modu askorekin egiten duela topo. Guk sustatutako independentziak aniztasun horren isla beharko luke izan, ikasleak gure autonomi eredia onartzerara behartzeke. Beraz, autoikaskuntzako ikasgelan garrantzi handikoak dira ikaslearen prestakuntza, arretaz emandako orientazioa, ataza zailetan laguntzea, eta baita ikasleei *taldearen independentzia* lortzen lagunduko dieten lan bereziak eskaintzea ere. Ikasleei ez litzaizkieke aukerak soilik eskaini behar, ondo aukeratzen lagunduko dioten orientazioak ere eman beharko litzaizkieke, ez autonomia bakarrik, baita autonomi mailak ere. Nire ustez, erantzukizun honi helduz, ia deabrukeria ere den "zerorrek ikasi" esatea baino independentzia askoz ere handiagoa ematen ari gatzazkie.

Bi jarrera hauen arteko tartea ez da agian zabala izango, baina ikasleekin aginte handiegiko izateari ihes egin behar zaion bezala, ikasleak inolako gidarik gabe beren erabakiak beren kabuz harrarazteagatik hondatzea ere saihestu beharrekoa da. Ambrose Bierce-k iradoki zuen bezala, ikasleen independentzian edo autoikaskuntzan interesaturik dagoen edonork kontu handiz begiratu behar du zein den irakasle/aholkulari/antolatzailearen rola ikaskuntz prozesuan. Guk, ondorioz, hauxe diogu: oinarrizkoa ez dela ikasleek *zer* egiten duten baizik *nola* egiten duten eta garatzen duten independentziaren aurrean zenbateko segurantzaren duten.

ESADE (Bartzelona)

Itzultzailea: Boni Urkizu